

BERROETA ALDAMARRI KUSKETAK

TOLARETXIPI X.

Gipuzko Diputazioako sala batian dago erretratatu marko eder batez inguratuta. Ez dakit norik pintatu da baño guztiz ondo egiña dago. Ba zekien bere epizivua kinadro auxe pintatu zuanak. Inorogei bat urte ditu Barroeta Aldamarrek erretratatu orretan. Gizon sendoa, patxararokoa, errespetu aundikoa. Irripar gozo batek alaitzen dio arpegia. Lege zarreko gizona esango genuke dana batian esateko.

Bada Barroeta Aldamarren izaldi pamatu bat Madrilgo Senatuhan Fueroen alde. 1864'go Garagarillan, Senatuhan, Sanchez Silva Fueroen kontrario zitakal berebiziko atakeak egiñik ari zan Fueroen kontra. Leisundak jenerala, Egiña ta Barroeta Aldamar, irurak Euskalerriko senadoreak, Fueroen alde berriaz. Izaldi ederrok egin zuten diskusio artan.

Elzan Barroeta Aldamar alde batematz uzteko gizona. Egoki ta astiro itz egiten zekien Baita era patxara ederran kontrarioai erantzuten. Giza arteko gizona zan.

Sanchez Silvani erantzuten asfian, ongi-nai esko agertzen da. «Braitxe ordu batzuk, alabatzen nenskan bat, aita bezela biotz-biotz ez nai niona, il zait. Ez dakit, jaunak, nere barren naasi onetan

arkituko dedan gogoetak eta arrazoiak erazteko bear nuken baretasuna. Neke au Senadnak kontuan eduki eta nere arrazoiak itzak baño geiago onartu dit-zala».

Eta diyo berealaxe nola gazetan Gipuzkoan bidali znan Calomarde ministroarengana onen Fueroen kontrako asmoak eragotzera. Egia esan, orduan laguntza aundiya arkitu nuan. «Consejo de Castilla» deritzan bazkunak indar aundiz esan zion Erregeari, Fernando zazpigarrenari, baldin Gipuzkoako probintziak zintzo izatera beartua bezegon, bera baita ere Errege bezela Fuero oso-osoaen aurren-aurreko gordetzaille zala. «Gaur, nere zaritzaoran oiek berak defenditzea tokatzen zaib. Une artako bere zartasuna berriro ere agertzen da. Alegia, Sanchez Silvak Fueroak parrez eta isekaz erabili zituala-eta, onek euskaldunoi egindako barren-barrengo zauria Barroeta Aldamarrek asaltzen du.

«Nere urteari ez dagokio jostari ta itz-bizi jardutea —diyo— eta jarrai dezadan itz-aztun ez-tabañia au».

Emen esan dan bezela Fueroak gezurrezkoak, paper busti bat besterik ez dirala ontzat artzeko-

tan, diskusioa ezin-eziñekoa da, eta nik ez dakit orduan Españian erabiltzen diran gizarte dokumentuen egi eta balioa nortafinokoa izan litekean-zion baita ere.

Sanchez Silva jaunak Fueroak urratu ta ezereztu ditu, auts zurumbillo ikaragarria atereaz, eta nere gain dago beraz Fuero agurgarri oiek erri azke baten zorionaren onari ziur dirala agertzea.

Baño segi daiogun Barroeta Aldamarri bere izakeraren estraita oraitxe agertuko digu-eta.

«Lei oni jarraitzeko desberdintasun aundiya daukat. Sanchez Silva jaunaren erdera eder eta errena da benetan. Gañera bere andaluz jostari izakerak Senadu ontako entzuleak txoratuta dauka. Ni, berriaz, euskaldun zakar bat naiz, eta izkuntza batzuk ikasia izanagatik, euskera kutsua det errez asaltzen; euskarrena, bai, nik aurren-aurrena itezgin-dako izkuntza, aizkena aztuko dedana, nik ezagutzen dedan izkuntzarik osoena. Euskalduna naiz, jaunak, eta ez arritu nik nere arraza defenditzea».

Euskeldun geranoi barrerean alako emozioa sortzen digute benetan eder eta ondo jositako itz abek.

José de Arceche

UGARTE GORRIA (LA ISLA DESNUDA)

Bolara onetan, zorionez, zenbait films ikusgarri betetsi ditugu, ta beren artean onenetakoa noski «Ugarte gorria» (La isla desnuda).

Orrarazi degunez, gora-bera aundiak arkitu ditugu aspaldi ontan saspigarren artean. Urte aul xamarrak igaro ditugu films onak ikusteko; bat edo beste kenduta, oso txarrak izan dira azkenengo urte auetakoa. Amerikak aspalditik ezta dirua irabasteko zinea baizik egin; denbora-pasa ikusteko ez daude gaizki, baña ortik ez dira igaro geien-geienak. Ta, gaur, Europak daroa zantzoa, Suez, Frantzi, Errusi ta Itali aurrengo diralarik. Aipamen auek egiterakoan Españiko Berlanga eta Bardem ere goratu bearreran gera.

Egia esan, Ingmar Bergman-en *El séptimo sello*-gandik onuntza ezta azaldu *Uarte gorria* bezelakorik, ta ori films oso onak ikusi ditugula oraingo eran. Oiek zenbait gauza berri dakarte saspigarren artera.

Ugarte gorria, Japondik dator-kigu. Aurkezlari gutxi agertzen dira, ta beretatik lau bakarrik ixa lan guzia eramaten dutenak. Ez dira mintzatzen. Films mutu antzera egiña da, baña garraiziren bat edo beste enluten dira. Oiek ere oso gutxi. Mimikarekin baliatzen dira sentimentu eragille musika sakona dualarik. Folklorezko agerpen batzuetan aurkak kantari ari dira. Ori da entzun genezakean guztia. Baña, ongi ulertzen da.

Musika ederra du, baña fotografiaik ez dira txarragoak. Musika zaleak eta fotografi zaleak, oiegatik bakarrik joan bear litza-kez; ez dira damnutuko. Maiz, musika bera bakarrik naikoa da biotz-ukitzeko, ta bestaldetik eza-

gun da fotografilari bikañetari-koan eskua. Azalpen baiktetzak aurraz ondo ikasiaren itxura du. Beltz-txuriari dago ta ainbat meritu geiago. Fotografi oien alde esan genezakean guzia gutxi da. Agiri danez, estetika legeak ondo estudiatuñ ibilli da zuzendari.

Gaia ez da sakona. Gizarte gaia da, baña sakona ez bada ere, bai sakon eramana. Senar-emazite nekazariek bizi ziran bi semetxokin, urik etzegon ugarte batean. Toki txiro artan, nekegarri zitzaien ogia irabastea. Auzoko ligo-rrera batelean joan bear izaten ziran uretara, ta ez bakarrik edateko ta garbitzeko, baizik, Jegortean sorretarako ere bai.

Orreia azaltzen dituzte lau urte-aretoko gora-bera ta arazo guziak. Arazo larriak. An ikusten da gizajo batzeneri ogia zenbait kostatzen zaien.

Bestaldetik, inoiz auzoko errira joaten diranean, jauntxokeria agiri da, famili guzjoak ugarte gorrian irukez ordaintzat ainbeste kostatuko uzta ematerakoan. Munduan zenbait orrelako gertatzen dala jakitak, ematen digu zer pentsa.

Ala ere, itxaropentsu bizi ziran semeak aziaz. Nagusia, egunero joaten zan batelien eskolara. Beregan zuten gerorako itxaropena. Baña, naiez batek artuta, seme au, il-zorian jarri zan. Ordu larriak aiek. Films samingarri asko ikusi ditut, inoiz negar egiteko bezelakoak, baña nere akorduz emen bakarrik ixuri ditut nere malakoak.

Ez nijoa esatera gero zer gertatu zan. Naiago det irakurleak bere begiz ikusi dezan.

Jende gutxi joaten diran films oietakoa degu. Baña, benetako zinema zaledanari etzaio damnutuko *Ugarte gorria* (La isla desnuda) ikusi bearra.

J. San Martin

DIRU EZKONZAK

Zeruko Argia n atek irikiak dauzkagunez, txoko baten jabe izan naitrik bertan, pozik esker-tuaz, gaitxo bat labor-labor azal-tzea nator.

Bai, zer izango ta... neskaixen arteko alkar-izketa:

—Aizan, baldakiñ...? Joxepa eskontzen den biar.

—Zeñekiñ? Arako begi-mar-

katuarekiñ? Ez diñ bizio aukera politta egin...

—Bai, ik kontuak esango ditun baño, bolsillue diñ arek be-roa bolsillue. A... zerbaitegatik artu diñ...banetxonan ba beste-la...

—Nik ez diñat orrelako suerte-rik, atzo egiñ nizkiñan 24 urte, bakarrik eta «sin compromiso».

Oraindik ere diru-ekontzak egingo litzuzken gazteak bai-ote-dauden...

Esna zaitzete gazte maiteok garaiean zaudete ta, geyegirikan ez begiratu bolsilluko otz-epelata, mutil bat senar-gai nai badezu artu zazu maitatuta, eta ez ariñ ariñ esanaz diru-duna omen dat!

ZUBI

ALE BAKARRA: 2'50 PEZTA

«Seaska'n»

Aurtin esgingo al du Jaunartzea zure seme edo alabaren botek? «SEASKA'N» dituzu, orretorako jantzi egokiak: azpiko ta goñeko; bear dezun guztia antxe. Egiñak ala neurriz nai dezun bezela.

Emakumuntzat ere badituzte bertan blusak, tergolezko gonak, manillak, buruztopiak eta abar.

Alameda, 24. S. Jerónimo lekian

Urrutizkiña 1-18-54

DONOSTIA 'N

ZERUKO ARGIA FRANQUEO CONCERTADO N.º 37.21

D. JUAN ZULAICA
 Terrogado de Aranzazu
 «RAT»

ENTZUN EUSKAL IRRATIAK:

Donostia'ko Erri Irratia, Loiola, Arrate, Beruete, Segura, Tolosa ta Bilbao Erri Irratia